



Hasteko, aipatu behar dugu gure enpresan ez dagoela ez banaketa kanalik ez salmenta kanalik. JAI BUSA proiektuan, berriz, komunikazio kanala oso garrantzitsua da, gure burua ezagutarazteko modua delako. Bezero gehienak gazteak izanik, komunikazio kanal desberdinak erabiliko ditugu haiengana heltzeko.

Gaur egun, sare sozialak informazioa jakinarazteko komunikazio-kanalik eraginkorrenak dira, hala nola, Instagram. Bertan, iragarkiak argitaratuko genituzke eta gure kontu propioa zabalduko genuke, jendea harremanetan jar dadin. Horrela, Euskadiko gazte guztiengana iritsiko ginateke eta denek ezagutuko lukete gure garraio publikoa.

Bestalde, gazteek gehien erabiltzen dituzten lekuetan. Adibidez liburutegietan, zentro zibikoetan, institutuetan edo akademietan, gure autobusa iragartzeko kartelak jarriko ditugu. Gainera, ahoz ahokoak ere asko lagunduko liguke; izan ere, zerbait gustatzen bazaie, lagunei kontatuko diete, eta horrela, gazte guztien belarrietara iritsiko ginateke.